

ELIZAREN ETORKIZUNA (1)

Eskupera jin zait ("ustekabeen" ez dut sinesten) joanden apirilean Henri-Jérôme Gagey teologoak (Pariseko Instituto Katolikoan erakasle eta Créteil diosesako apez) eskaini hitzaldiaren testoa. Ahoan bilorik gabe, lau pondutan tratazen du Elizaren etorkizunaren gaia. Haren gogoeten muina zuenganatzera entsaiatuko naiz bi artikulutan.

Gogoeten abiapundua da hainbat aldiz, kronika sail huntan berean, batzuk edo bestek agertu izan dugun kezka edo arrangura, hau da kristautasunaren gibelakada.

I. Kristautasunaren etorkizuna

Ohargarria da zoin denbora gutiz Eliza katolikoak eta erreforma protestantetik sortu Eliza historikoek beren onargarritasuna galdu duten beren betiko lurraldetan, "garai kanpokoak" bihurtzeraino. Arrotz bihurtu dira hainbat mendetan jendalde gehienen irudikapena eta egunerokoa antolatzen zuten dogma, sinbolo, errito edota egutegi kristauak. Katolizismoa nolazpait "ex-kulturaturik" aurkitzen da. Nola ulertu gertaera hau ?

Lehen lehenik, dio H.J. Gagey-k, baztertu beharra dago gaurko egoeraren interpretazio "paranoikoa". Tentazionea da, alabaina, hoben guzia etsaien gogo-gaixtoaren edo eliz agintarien ez-gaitasunaren gain jartzea. Arrazoin hauek, funsgabeak ez badira ere, ez dira nahikoak dena esplikatzeke. Hauek baino gorago edo urrunago jo behar da.

Frantziako apezpikuek 1996an katolikoeri igorri Gutun batean hauxe zioten:

"Elizak gaur egun bizi duen krisialdia, neurri handi batean, hedadura mundiala duten gizarte eta kultur aldaketa bizkor eta sakonen ondorioa da, Eliza bera eta hunen kideak jotzen dituen.

Munduz eta gizartez aldatzen ari gira. Mundu bat ezabatzen ari da eta beste bat sortzen, hunen eraikuntzarako niholako eredu aintzin-jarririk ez dagolarik. Aintzinako orekak desagertzen ari dira, eta oreka berriek lanak dituzte tokian jartzen. Eliza, alabaina, bere historia guziaz, bereziki Europan, aintzinako orekekin eta ezabatzen ari den munduaren irudiarekin aski hertsiki loturik dago..., eraiki beharreko munduaren irudiak ihes egiten digularik." Azkenean, giza aktibitatearen arlo guziak eta gizarte guziak joak gertatzen dira, hauen artean Eliza.

Aintzina segitzeko, hiru nozio edo kontzeptu argitu beharrak daude: tradizioa, modernitatea eta postmodernitatea.

II. Munduz aldatzen ari gira

Tradizioaren munduaren ezaugarri nagusia da egonkortasuna: errealitate orok, bere baitako indarrez, bere tokia aurkitzen eta beiratzten du munduan. Boteredunek eta aintzinekoek zaindu alda-ezinezko zuhurtzi altxorak aditzera emaiten du munduaren egia. Haur batek, bere etorkizuna zoin den jakiteko, aski du zaharragoen egin ibilbidea ikusi eta neurtzea.

Egonkortasun hau du **modernitateak** hankaz gora jarriko: arrazoin kritikoak tradizioaren alderdi alienagarrietarik libratzea iradokitzen du, mundu arrazionalago bat tokian jartzeko.

Erdi Aroan sortu hausnarbide berri bat garatuz eta indartuz joanen da XVII. mendetik gora. Descartes filosofoak *"zalantza metodikoa"* erabiltzen du segurtasunak ardiesteko tresna gisa, tradiziotik edo guharen zentzumenez onartu baieztapenak arrazoibidez egiaztatuz edo gezurtatuz.

Kant, **"dena da diskutigarri"**, eta beraz hobegarri, erraitera ausartzen da.

Hausnarbide berri hunek sekulako aldaketak ekarriko ditu ondorioz. Huntan dira errotzen, Europa mendebaldeak ezagutuko dituen bai xede demokratikoen eta giza eskubideen errespetuaren aldarrikapenak, bai jakintza zientifikoen garapen ikaragarria. Hortik dator Europak eta Ipar Amerikak XIX. eta XX. mendetan ezagutuko duten garapen ekonomiko harrigarria, mundu osoari hedatuko dena. Ondorioz, errotik aldatzen dira gizakien bizitzaren baldintza materialak. Kultura eta askatasunerako sarbideak jendalde gehiengoaren esku jarriak dira. Gibelera egiterik ez dago.

Bainan hunek beste ondorioz ere badu: errentagarritasuna bihurtzen da "etika" berria, tradizioa jokoz kanpo utzi eta individualismoaren kultura hedatzen da. Nere bizitza nerea da, nere hautuak ez dauzkit ez familiak ez bikoteak ez sindikatuak ez partidoak ez tradizioak inposatuko, eta tresneria guziaren (TV, ordenagailu, smartphone...) bidez sistema globalari loturik nago.

Egoera berri hunen erradikalizazioa eta orokortzea deitzen da postmodernitatea, ondoko astean aztertuko duguna.

Peio Ospital (2014-12-01)

